

ILARAN DANTZA

Jarduera

Taldean dantzaten den jarduera honetan, bata bestearekin lerrokatuta egongo dira koreografia berdina interpretatzen duten bitartean.

Deskribapena

Linea dantza country musikarekin lotuta zegoen baina pixkanaka beste musika estiloetara hedatuz joan da, adibidez, funky, swing eta abarretara. Talde jarduera honetan, bata bestearekin lerrokatuta dantzaten ikasiko dugu koreografia desberdinak interpretatzen ditugun bitartean.

Helburuak

- Taldean dantzaten ikastea.
- Oroimena lantzea eta koordinazioa hobetzea.
- Autoestimua eta norberaren konfiantza indartzea.
- Parte-hartze herrikoirako guneak sustatzea.

Programa

1. Hiruhilekoa.

- Maila errazeko koreografiak ikastea.
- Dantza estilo ezberdinen oinarrizko pausoak ikastea.
- Ispilura begira eta ispiluari bizkarra emanez dantzaten ikastea (berdina dantzatu 2 aurpegi ezberdinetara).

1. Hiruhilekoa

- Beste dantza estilo batzuetako oinarrizko pausoak ikastea.
- Aurreko koreografiaren errepasoak.
- Koreografia pixka bat zailagoak ikastea.
- Gorputzeko atal ezberdinen koordinazioa.
- Sekuentzia berdina 4 alde edo aurpegi ezberdinetara dantzaten ikastea.

1. Hiruhilekoa

- Aurreko koreografiaren errepasoak.
- Maila altuagoa duten koreografiak ikastea.
- Kurtso amaierako ikuskizuna prestatzea (ikasleek parte hartu nahi badute).

Irakaslea

- Prokulturako irakasle taldea

Nori zuzendua

Helduak.

Ikasleak eraman beharreko materiala

Arropa eta zapata egokiak.